

Lau jaiotzatik hirutan amak 30 urte baino gehiago izan zituen

Jaiotakoen erdia baino gehiago lehenengo seme-alabak izan dira.

EUSTATEk egindako Jaiotzen Estatistikako 2007ko lehen hiruhilekoko datuetan, 4.858 jaio jaso ziren, hots, iazko aldi berean izandakoen antzeko kopurua. Lurraldez lurralde, Araban 707 haur jaio ziren, Bizkaian 2.462, eta Gipuzkoan 1.689.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2007ko lehen hiruhilekoan, erdiak baino gehiago, 2.778 haur, lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.740 (%35,8) aurretik beste bat bazen familietara iritsi ziren; eta hirugarren eta ondorengo seme-alaben portzentajea %7ra iritsi zen.

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, ikusiko dugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere nagusi dela argi eta garbi, haien artean gertatu baitziren erditzeen ia erdiak. Ondoren, goragoko taldea dago, hau da, 35-39 urte artekoa (%27,3) eta 25-29ko taldea beherago geratu da, erditzeen %16,8 ekarri baititu. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtez behera amatu zirenak %6,2 izan ziren, eta 40 urtez gorakoen taldeak, berriz, jaiotzen %5 ekarri zuen.


Ama ezkongabe gehiago dago

Ezkontzaz kanpo jaioek guztizkoaren %26,7 hartzen dute, eta bi puntu igo dira 2006ko lehenengo hiruhilekoaren aldean. Gipuzkoa (%25,4) izan da Euskal AEko kopuru orokorra baino txikiagoa izan duen lurralde bakarra. Talde horren erditze-adina haurrak eduki zituzten amen multzo osoarena baino txikiagoa izan zen, ama ezkongabeen %16,5 25 urtetik beherakoak baitziren.

1. taula: Bizirik jaioak Euskal AEn. Taula konparatiboa.

	2007ko 1. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2006ko 4. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2006ko 1. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	4.858	100,0	4.985	100,0	4.873	100,0
Araba	707	14,6	699	14,0	702	14,4
Bizkaia	2.462	50,7	2.500	50,2	2.475	50,8
Gipuzkoa	1.689	34,8	1.786	35,8	1.696	34,8
Amaren adinaren arabera						
<= 24 urte	300	6,2	281	5,6	293	6,0
25 - 29 urte	816	16,8	826	16,6	892	18,3
30 - 34 urte	2.174	44,8	2.219	44,5	2.174	44,6
35 - 39 urte	1.325	27,3	1.392	27,9	1.300	26,7
>= 40 urte	243	5,0	267	5,4	214	4,4
Amaren egoera zibilaren arabera						
Ezkontdua	3.562	73,3	3.646	73,1	3.676	75,4
Ezkontgabea	1.296	26,7	1.339	26,9	1.197	24,6
Jaiotza-hurrenkera						
Lehenengoa	2.778	57,2	2.888	57,9	2.808	57,6
Bigarrena	1.740	35,8	1.756	35,2	1.745	35,8
Hirugarrena edo gehiago	340	7,0	341	6,8	320	6,6

1. grafikoa: Jaiotzen hilez hileko mugimendua.



Iturria: EUSTAT

oinarria 100 = b.b.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tlf:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es